



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

**Europar Kontseiluaren ohiz kanpoko bilerari buruzko oharra
(EBTaren 50. artikulua)
Brusela, 2017ko ekainaren 22a**

Oharra: Europar Kontseilua ez da Erresuma Batuak Batasunetik alde egiteari buruzko negoziazioak egiteko eztabaidagunea; lan hori Erresuma Batuak eta Europar Batasunak horrexetarako izendatu dituzten talde negoziatzaileei dagokie, eta 2017ko ekainaren 19an hasi zuten negoziazioen lehen fasea.

Horregatik, 2017ko ekainaren 22an bildu zen Europar Kontseiluan (EBTaren 50. artikulua), estatuburu eta gobernuburuak Theresa May Erresuma Batuko lehen ministroak adierazitako intentzioen berri jasotzera eta, Michel Barnier Batasunaren negoziazio taldeburuaren ahotik, aste honetan hasitako lehen negoziazio faseari buruzko informazioa hartzera mugatu ziren. Hori dela eta, Erresuma Batuak Europar Batasunetik alde egiteari buruzko ondorioez ez zuen testurik onartu Europar Kontseiluak.

Hala ere, Europar Kontseiluarekin paralelo, Batasuneko 27 estatueta estatuburu eta gobernuburuak Sendagaien Europako Agentzia eta Europako Banku Agintaritza birkokatzeari buruzko erabaki bat hartzeko prozedura berretsi zuten Erresuma Batuak Europar Batasunetik alde egitearen testuinguruan.

Ondoren, prozedura horren inguruko zertzelada nagusiak laburbiltzen dira.

Sarrera

Erresuma Batuan daude gaur egun Sendagaien Europako Agentzia (EMEA) eta Europako Banku Agintaritza (EBA); biek dute beren egoitza Londresen (Canary Wharf).

Erresuma Batuak Europar Kontseiluari, EBTaren 50. artikulua araberak, Batasuna utzi nahi duela jakinarazi dionez gero, Erresuma Batuan kokatuta dauden agentzia biak Batasunaren lurralde barruko beste leku batzuetara aldatu behar dira.

2017ko ekainaren 22an izan zen Europar Kontseiluaren inguruan (EBTaren 50. artikulua), prozedura bat onartu da, Erresuma Batuak Europar Batasunetik alde egin ondoren, agentzia biek egoitza non izan behar duten erabaki dezaten EBko 27 estatuak.

Prozedura hori oraingo egoerarako berariazkoa da, eta ez da bihar-etzi agentziak kokatzeko aurrekari bat.

Prozesuaren printzipio nagusiak

Agentzia bien bihar-etziko egoitzari buruzko erabakiak ekitatezko erabakitze prozedura gardena izan behar du oinarri, eskaintzen deialdi bat antolatuaz, irizpide objektibo eta esplizituen arabera.

- Batasuneko estatu interesatu guztiek beranduen 2017ko uztailaren 31 arte aurkez dezakete eskaintza.
- Batzordeak epe barruan jasotako eskaintzak aztertuko ditu eta hitzartzen diren irizpide haztatu gabeen arabera eskaintza horien ebaluazio bata egingo du. Ebaluazio hori erabakiak hartzeko prozesuaren osagai bat izango da.
- Erabakia bozketaz hartuko da eta Batasuneko estatuek aurretiaz hitzartu dute prozesu horren emaitza onartzea.
- Helburua kokapen berriei buruzko erabakia 2017ko udazkenean izatea da.
- 2017ko azaroko Gai Orokorren Kontseiluaren paralelo erabakitzea aurreikusten da (EBTaren 50. artikulua).

Irizpideak

Birkokapen bat erabakitzeko irizpideak, analogiaz, agentzia baten egoitzaren kokapena erabakitzeko irizpideetan oinarritzen dira. Irizpide horiek agentzia espezializatuei buruzko agentzia espezializatuei buruzko Deklarazio Komunaren eta Planteamendu Komunaren 6. puntuan zehazten dira, bereziki kontuan hartuta agentzia biak egon badaudela eta agentzia bien jarraipena hil edo bizikoa dela eta bermatuta geratu behar duela.

Irizpide objektiboez gain, Deklarazio Komunak sakabanatze geografikoa komeni dela eta etorkizunean sortzen diren beste agentzien egoitzaren banaketan Batasuneko estatu berriei lehentasuna ematea helburu bat (2003an finkatua eta 2008an berretsia) dela ere aipatzen du. Prozedura hau birkokapenari badagokio ere, eta ez agentzia berriak sortzeari, akordio haren espiritua kontuan hartu behar da.

Birkokapena erabakitzeko irizpideak hauek izango dira:

- Erresuma Batuak Batasunetik alde egiten duen unean, aukeratutako lekuan agentzia sortu ahal izango dela eta bere funtzioak bere gain hartuko dituela bermatzea: irteteko egunean kokapen berrian agentziak bere eginkizunak bere gain hartu ahal izan ditzan bulegoen lokalak garaiz egokituta egongo direla esan nahi du bereziki.
- Lekuaren irisgarritasuna: EBko kide diren estatu guztietako hiriburuetatik aireportu hurbiletara dagoen hegaldi konexioen irisgarritasun onaz eta aireportu horietatik egoitzaren lekura dagoenaz ari da. Ostatu azpiegituren kalitatea eta kantitatea ere kontuan hartuko da.
- Langileen seme-alabentzako hezkuntza ikastetxe egokiak egotea: langileen seme-alaben beharrak betetzeko gai izango diren eskola eta ikastetxe eleaniztunak eta bokazio europazalekoak edukitzeaz ari da.

- Seme-alabek eta ezkontideek lan merkatura, gizarte segurantzara eta osasun arretara irispide egokia izatea.
- Jardueraren jarraitutasuna: dagokion agentziak duen maila garaian etengabe funtzionatzen jarraitzea bermatu beharraz ari da. Agentziek mantendu egin behar dute agentziek dagozkien sektore guztietako prestakuntza goreneko langileak edukitzen jarraitzeko eta erakartzeko ahalmena, bereziki oraingo langile guztiek lekualdatzea erabakitzen ez badute.
- Sakabanatze geografikoa (EBko lurraldean).

Egoitza eskaintzak

Arau eta baldintza hauek aplikatuko dira:

- Batasuneko estatu bakoitzak bere burua eskain dezake agentzietako bat edo biak edukitzeko, baina eskaintza bakarra egin dezake agentziako.
- Batasuneko estatuak gorago aipatutako irizpideak jorratu behar ditu eta horietako bakoitzerako eskaintzen dituen baldintzak zehaztu. Bereziki, jardueraren jarraitutasuna nola bermatzea pentsatu duen adierazi behar du.
- Dagokion agentziarekin egoitzaz egingo den akordioan Batasuneko estatuak baldintza horiek berresteko konpromisoa hartzen duela adierazi behar dute eskaintzek.
- Eskaintzak Kontseiluko idazkari nagusiari aurkeztu behar zaizkio idatzita, eta kopia bat erantsi behar zaie Batzordeko idazkari nagusiarentzat. Eskaintzak aurkezteko epea 2017ko uztailaren 31n amaitzen da.
- Eskaintzak dagoeneko aurkeztuta dituzten Batasuneko estatuei gonbita egiten zaie, emandako epearen barruan interes adierazpena berriro berrets dezaten, aipatutako irizpide horiek jorratuta.
- Epe barruan jasotzen diren eskaintzak Europar Kontseiluaren Interneteko gunean argitaratuko dira, merkataritza sekretuak eta isilpeko bestelako informazioa izan ezik.
- Batasuneko kideek bideo grabazio labur bat aurkeztu ahalko dute aurkezpen gisa. Europar Kontseiluaren Interneteko gunean argitaratuko dira eskaintzekin batera.

Eskaintzek xehetasunez adierazi behar dute nola jorratzen dituzten 6 irizpideak eta eskaintzen dituzten baldintzak zehaztu behar dituzte.

Bereziki hauek sartu behar dituzte:

- Birkokapenaren uneaz eta eraz Batasuneko estatuak duen programa.
- Agentziari eskainiko litzaizkiokeen lokalak, bai alokairuan bai lagapenez.
- Agentziak lokal horiek erabiltzeko finantza baldintzak.
- Eraikinaren mantentze lanetarako baldintzak.
- Agentziari esleitutako kostu eta azpiegitura guztiei dagokienez, eskaintzen diren baldintza berezi guztiak.
- Agentziari eta/edo haren langileei ematen zaizkien abantaila guztiak (Europar Batasuneko pribilegio eta immunitateei buruzko 7. protokolotik eratortzen direnez gain).

Batzordeak aztertzea

Batzordeak epe barruan jasotako eskaintza guztiak aztertuko ditu, sei irizpide objektiboetan eta jasotako berariazko gaietan oinarrituta.

2017ko irailaren 30ean, beranduenez, Batzordeak eskaintzen ebaluazioa Kontseiluko idazkari nagusiari aurkeztuko dio Batasuneko estatuei bidaltzeko eta halaber argitara emango du.

Erabakiak hartzea eta bozketa prozesua

Batzordearen ebaluazioa erabakiak hartzeko prozeduraren osagai izango da.

Erabakiak hartzeko prozeduraren aurretik Batasuneko estatuen ordezkarien artean Batzordearen ebaluaziotik abiatuta antolatutako eztabaida politiko bat egingo da. Gai Orokorren Kontseiluaren paralelo egingo da (50. artikulua) urrian.

Eztabaida Coreperrek xehetasunez prestatuko du (50. artikulua):

- Batzordeak bere eskaintzen ebaluazioaren ahozko aurkezpen bat egingo du.
- Eskaintzak aurkeztu dituzten Batasuneko estatuek bere eskaintzaren aurkezpen labur bat egin ahal izango dute.

Erabakia bozketaz hartuko da Gai Orokorren Kontseiluaren paralelo (50. artikulua) azaroan.

Eskaintza guztiak, erretiratu direnak izan ezik, bozketan sartuko dira.

Bozketa sekretuan emandako botoen bidez eta Batasuneko 27 estatuetako bakoitzak boto kopuru bera duela, bata bestearen segidako bozaldietan oinarrituko da bozketa prozesua.

Lehen bozketa saioa Sendagaien Europako Agentziari emango zaio. Batasuneko estatu hautatua ezin izango da izan Europako Banku Agintaritzaren egoitzarako hautagai (Europako Banku Agintaritzaren egoitza izateko eskaintza bat aurkeztu badu, baztertu egingo da). Sendagaien Europako Agentzia izateko hautatutako Batasuneko estatuak parte hartu ahal izango du Europako Banku Agintaritzaren egoitzaren bozketan.

Bozaldiak:

- 1. bozaldia:

Batasuneko estatu bakoitzak 6 puntuko boto bat izango du, horietarik 3 emango zaizkio lehentasun handiena ematen dion eskaintzari, 2 lehentasun hurrenkeran bigarren deritzonari eta 1 hirugarrenari. Botoak balio izateko, 6 puntuak prozedura honen bitartez eman beharko dira.

Eskaintza batek 3 puntu jasotzen baditu gutxienez Batasuneko 14 estatuk emanda, eskaintza hori hautatu dela joko da.

Batasuneko gutxienez 14 estatuk 3 puntu eman dizkioten eskaintzarik ez badago, puntu kopuru handiena jaso duten hiru eskaintzak bigarren bozaldira igaroko dira.

Hiru eskaintza baino gehiago badira puntu kopuru handiena jaso dutenak, emaitza handiena jaso duten eskaintza guztiak igaroko dira bigarren bozaldira.

➤ 2. bozaldia:

Batasuneko estatu bakoitzak boto bat izango du (puntu bakarra) bigarren bozaldira igaro diren hiru (edo gehiago) eskaintzetako bati emateko.

Eskaintza batek 14 boto edo gehiago jasotzen baditu, beraz gehiengoa, hautatu den eskaintza dela joko da.

Eskaintzetako batek ere ez baditu 14 boto edo gehiago jasotzen, botorik gehien jaso duten eskaintza biak hirugarren bozaldira igaroko dira.

Hiru eskaintza (edo gehiago) berdinduta geratzen badira, horiek guztiak igaroko dira hirugarren bozaldira.

➤ 3. bozaldia:

Batasuneko estatu bakoitzak boto bat izango du (puntu bakarra) bozketaren hirugarren fasera igaro diren eskaintzetako bati emateko.

Botorik gehien jasotzen duen eskaintza izango da eskaintza hautatua.

Berdinduta geratzen badira, Lehendakariak hartuko du erabakia, berdindutako eskaintzen artean zozketa eginaz. Zozketaz aukeratutako eskaintza izango da hautatutakoa.

Etorkizuneko egoitzei buruz hartutako erabakietan oinarrituta, bai Sendagaien Europako Agentzia (EMEA) bai Europako Banku Agintaritza (EBA) arautzen dituzten arautegiak aldatuko dira.